

# Sevillan epaitu nahi dena elkartasun mugimendua dela deritzote solidarioek

*Zigortzen badituzte ere epaiketatik indartuta aterako direla diote auzipetuek*

Axun Erzibengoa / Donostia

Presoekiko Elkartasuneko kideek datorren astean Sevillan izango den epaiketarako lortu dituzten atxikimenduak eta lekuko zerrenda aurkeztu zuten atzo. Asteazkenean talde horretako 10 kide epaituko dituzte, iazko abuztuan Munduko Atletismo Txapelketan *Giraldilla* maskotaz mozorrotuta presoan Euskal Herriratzea eskatzeagatik. Epaiketak «Espainiaren injustizia are ageriago» utziko duela uste dute auzipetuek.

DESORDENA PUBLIKOAK egitea leporatzen diete asteazkenean Sevillan epaituko dituzten 10 lagunei. Atzo, epaiketari begira presoan auzian euskal gizarteak duen iritzia islatu nahi izan zuten kultura eta kirol munduko zenbait lagunak atxikimendua azalduz. Epaiketarako proposatu duten lekukoen zerrendak ere euskal gizartearen ordezkariak zabala adierazten du. Hala ere, ez da ziurra lekuko horiek deklaratu duten —asteazkenean epaiketaren aurretiazko galetan erabakiko du epaileak lekukoak onartzen dituen edo ez—. Euskal ordezkariak gain hiru lekuko zuzen proposatu ditu.

Presoekiko Elkartasuneko kideek iazko abuztuko ekin-tza «oso arrakastatsua» izan zela azaldu zuten. Orduan bezala orain ere epaiketara «indartsu eta gogo bizia» joango direla azaldu zuten. Helburua iazko abuztuko bera izango dela azaldu zuten, hau da, «Frantziak eta Espainiak presoan gaian legez kanpo jokatzeko ari direla salatzea». «Justizia egiten den leku berean salaketa bera egingo dugu, toki aproposa dela uste dugu».

Presoekin legea ez dela betetzen ikusita, ondoko galdera egin zuten: «Norbaitek legearen kontra jokatzeko duenean eskubiderik ba ote du beste inor epaitzeko? Argi dago ahalmena badutela. Gu joango gara, baina elkartasun mugimendua da epaitu nahi dutena».



EDURNE KOCH

Presoekiko Elkartasuneko kideak taldekoak eta haiei sostengua agertzeraz joan ziren ordezkariak atzoko agerraldian.

## Defentsak proposatu lekukoak

- Euskal gizarteko ordezkariak zabala deitu du deklaratzera defentsak eta baita hiru lekuko zuzenak (zerrendako azken hirurak).

Jose Antonio Rubalkaba (EAJ)  
Rafa Larreina (EA)  
Sanchez Gordillo (IU)  
Jone Goirizelaia (EH)  
Mertxe Kolina (AB)  
German Kortabarria (ELA)  
Rafa Diez (LAB)  
Gorka Espiau (Elkarri)  
Jose Manuel Balenziaga (Herria 2000 Eliza)  
Tomas Karrera (Senideak)  
Loli Laskurain (Senideak)

Mari Luz Bella (Preso ohia)  
Manu Azkarate (Preso ohia)  
Txemari Aranburu (Preso ohia)  
Juan Mari Olano (AAB)  
Xabier Erro (Salhaketa)  
Arantxa Zulueta (Abokatua)  
Estibalitz Gorostiaga (Medikua)  
Felipe de Borbon (Asturiasko printzea)  
Manuel Chaves (Andaluziako presidentea)  
Carlos Herrera (Aurkezlea)

Epaiketak sakabanaketa salatzeke ematen dien aukera eskertu zuten.

Epaiketan zigortuko dituzten edo ez gutxienekoa dela

agertu zuten *solidarioek*. «Gu justiziaren alde ari gara, eta errugabe joko gaituztela uste dugu. Injustizia egin eta zigortzen bagaituzte, indartua-

go aterako gara *solidarioak*». Fiskalak 730.000 pezetako isuna eskatzen du bakoitzarentzat. Zigortuz gero, zigor handiena nahi zutela esan zuten. «Injustizia egin behar badute, zigorrik handiena bota dezatela. Horrela nabarmenago geratuko dira. Guk, bide baketsuak erabiliz, eskubideak errespetatu ditazela eskatzen jarraituko dugu».

Erronka ere bota zuten. Kontu korrante bat ireki dute dirua biltzeko, eta bertan, jartzen dieten zigorra halako bi biltzea dutela helburu esan zuten. «Zigorra bostekoa bada, guk 10 bildu nahi ditugu. Zazpikoa bada, hobe-to; 14 biltzeko erronka izango dugu». Euskadiko Kutxako 30350065760651-049030 zenbakia da.

## Atxikimendu ugari jaso dituzte 'Giraldillek'

DATORREN astean epaituko dituzten kideei eta oro har elkartasun mugimenduari babesa azaldu zioten atzo kirol eta kultur arloko zenbait ordezkariak. Haiek sinatu manifestua irakurri zuten Maider Zabalegi trikitilariak eta Igor Jauregi futbolariak. Giza eskubideen defentsan nabar-

mentzen diren nazioarteko taldeek presoek euren etxetik hurbileneko espetxeetan egoteko eskubidea defenditu izan dutela oroitarazi zuten.

Euskal gizarteak ere bere erakunde bitartez eskubide hori aldarrikatu duela dio agiriak. «Madrilgo eta Paris-ko gobernuek giza

eskubide demokratiko hau urratzen dute».

Agiria sinatu duten artean dira besteak beste: Iker Sarriegi, Mikel Aranburu eta Zuhaitz Gurrutxaga futbolariak, Ramon Agirre, Iñaki Beraetxe, Xebe Diez eta Klara Badiola aktoreak, Pepe Rei, Martxelo Otamendi eta Mertxe

Aizpurua kazetariak, Eva Forest eta Alfonso Sastre idazleak, Migel Angel Iribar eta Reyes Karre-entrenatzaileak, Mikel Laboa, Benito Lertxundi eta Fermin Muguruza kantariak, Nestor Basterretxea eskultorea eta Andoni Egaña, Jesus Mari Irazu eta Maialen Lujanbio bertsolariak.

## Alcalako presoek protestak egin dituzte mobilizazio astean

Alcala Meco kartzelan dauden euskal presoek itxialdiak egin zituzten joan den astean, hilaren 23an eta 25ean, greba eta mobilizazio astearekin bat eginez. Horrekin batera larunbateko bisiten amaieran kartelada egin zuten. Fleury Merogiseko kartzelan ere presoak Euskal Herriaren independentzia eskatzen zuten kamisetekin atera ziren bisitetara. Funtzionarioekin tirabira batzuk izan ostean lortu zuten bisita ez galtzea errebindikazio hori egin arren.

## Ander Gerestaren aldeko mozioa onartu du Zizurkilgo Udalak

Zizurkilgo Udalak Ander Geresta Bordelen atxilotutako gaztearen aldeko mozioa onartu zuen asteartearen. EHko ordezkariak bakarrik izan ziren bilkuran. Mozioak Gerestaren familiari elkartasuna agertzen dio. Frantziak euskal errefuxiatuekiko duen jarrera salatu eta errefuxiatuek Euskal Herrian libre bizitzeko eskubidea dutela aldarrikatu zuten. Gerestaren estradizio eskaera gaitzetsi eta libre uzteko eskatu zuten.

## Kanpaldia egingo dute Santurtzin presoan alde

Santurtzirantz Ekimena da kanpaldiaren antolatzailea. Herriko parke nagusian jarriko dituzte dendak gaur goizean. 11:00etan kalejira herrikoia egingo dute. Gauean, berri, diapositiba emanaldia izango da. Bihar 11:00etan Korrika egingo dute, eta ondoren dantza ikuskizuna. Azkenik, kontzentrazioarekin amaituko da kanpaldia 13:45ean.

## Presoen aldeko futbol partiduak izango dira gaur Azpeitian

Azpeitiko plataformak antolatuta, futbol partiduak jokatu dituzte gaur presoan alde. Lagun Onak, Anaitasuna eta Zesto taldea ariko dira elkarren kontra Garmendipe zelaian 16:00etatik aurrera. Biltzen duten dirua preesentzatzat izango da.